


ttipi-ttapa



1990eko Urtarrilak 3


29. zenbakia

dohain banatzen

Olentzero

joan zaigu...

Gero eta jende guttiago Elizatan ... 2



Piszinak
bihurtuko
balira jende
gehiago joanen
elizateke

ez da
asko
aldatu
beharrik



Sakristian
labea
eta egurrak
konsumatzen

berrin
gastedia
elizeza
dator



eta
meza?

ez zen
igor
etortzen



ni bai!


zu
bakarra
arain
zuk ez da
kizur
igeritan



eta erre
zuak noiz
egiten
ditazue?




igeri
kurtsoetan



ura
kolore
guzitako
Kristenda
eguzkia
nekin

lehengo
zaharra
ongi
pentsatzen
izaten
eliza
egiten



gainera
bainu ederak
kandel argipean

OREMUS...

venite
adoremus...
venite
adoremus



amen
amen

NON-ZER

4. Beharrezko telefonoak.
5. Agenda.
6. Irakurleak mintzo.
7. Karriketan galdezka.
8. Prentsan agertua.
- 9/18. Herriz-herri; Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Goizueta.
19. Erreportaia. M. SANSIÑENA.
21. Elkarrizketa. P. LARRETXE.
22. Merkatu ttikia.
23. Kirolak. MATTARI.
24. Osasuna. O.M.T.
25. Aro berriaren atarian. F. ALTZUGUREN.
26. Arkupeak. M. LEGARRA.
27. Denborapasa. ENBIDO.

SOLDADUZKA DELA ETA ez dela azkenaldi honetan eztabaida indartuz joan da. Horra hor frogatzat urrian izandako hauteskundeak. Soldaduzkaren arazoa partidu guzien mintzaldi eta "eskeintzetan" agertu zaigularik...

19. or.



BAZTAN-BIDASOAKO MENDIGOIZALEAK, Baztandarren Biltzarra kirola bultzatzen eta I. Pilota Txapelketaren gora-beherak...

23. or.



MANOLO AROZENA berandu plazartua izan den arren, denboraldi honetan gauza frango ezagutzeko aukera izan du; bi aldiz parte hartu baitu Nafarroako Txapelkean eta aurten, Euskalerrikoan.

21. or.



GAUR EGUN Baztan, Malerreka eta Bortziriak (Lesaka ezik) elkartzen dituen errealitate bat, *Arkupeak* deitzen den jubilatutako pentsionista eta alargunen elkargoa dugu...

26. or.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna:

Josemanuel Irigoien

Publizitate arduraduna:

Miren Karmele Tolosa

Erredakzio taldea:

Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz

Ale honetan parte hartu dute:

Roman Harribillaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Patxi Petrirena, Txema Aldabe, Iban Isasi, Xorroxin Irratikoak, Koro Irazoki, Koro Etxeberria, Modesto Sansiñena, Patxi Larretxea, Mattari Altzuguere, Fermin Altzuguren, Enbido eta Martin Legarrak.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Copyright: ttipi-ttapa

Tirada: 1.500 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa 088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo 580235

Doneztebe 594300

Lesaka 637336

Leitza 510573

KONTSULTAK

Arizkun 587039

Gartzain 580451

Oronotz-Mugaie 592024

Ituren 594183

Sunbilla 594283

Goizueta 514067

Igantzi 637755

Arantza 634131

Bera 630036

Etxalar 635105

Urdazubi 599130

ANBULATORIOAK

Irun 630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea 614444

Nafarroako ospitalea 251500

SSko urgentzi zerbitzua 246750

Virgen del Camino

erresidentzia 262700

Gurutze Gorria 226404

ANBULANTZIAK

Oitz 594242/594342

DYA

Lesaka 637861

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie 592044

GARRAIOAK

Bidasotarra 630279

Baztanesa 580129

Leizaran 515018

HIRUGARRENADINARENDAKO

ZENTRUAK:

Elizondo 580730

Lesaka 637154

Bera 630104

ABERIAK:

Iberduero 594335/594336

ttipi-ttapa apalki-apalki euskal prentsa zabaltzen

1981ean *ttipi-ttapa* argitaratzen hasi zenean, seguruenik inor guttik egingen zuen apostu euskara hutsez eta hain bitarteko gutirekin egiten zen aldizkari xume harek, 8 urte iraunen zuenik.

Egia erran, gure aldizkariaren izenak aski ongi adierazten duen bezala, astiro eta poliki, *ttipi-ttapa* ibili gara orain arte; 29 zenbaki kaleratzera iritsi arte. Batzutan bertzetan baino hobekiago, batzuentzat bertzeentzat baino gustokoago, hortxe dago gure fruitua.

Nafarroako basamortuan, gure desgazirako, dakigunez, euskal aldizkari bakarra geratu gara. Halere, momentuz bederen, guk ez dugu amore emateko asmorik. Orain, aintzina-pausu bat emateko saiakera egitea erabaki dugu.

Gaur arterainoko astirotasuna apurtxo bat azkartuz, hemendik aintzina **hamabortzean behin** kaleratzea da gure asmoa. Horretaz gainera, gezurra badirudi ere, **dohain** izanen da, alearen kostoa publizitatea eta subentzioetatik lortutakoarekin ordaintzea pentsatzen dugularik.

Beraz, *ttipi-ttapa* eskuratzeko, txartela bete ezazu eta zuzen zuzenean hartuko duzu zeure etxean.

Apostu gogorra da egitera goazena. Halere, uste dugu pena merezi duela, eta euskarak bizirik iraunen badu, honelako apostu aunitz, leku aunitzetan egin beharko direla.

Lagun iezaiozu euskarari *ttipi-ttapa*, bide batez zure euskara *ttipi-ttapa* hobetuz *ttipi-ttapa*ren harpidedun eta irakurle izanez.

5 ORTZIRALA

- **Ituren**, Ihauterien data erabakitzeko bilera.

- **Zubieta**, Errotako Soziedadearen bilera.

6 LARUNBATA

- **Elizondo**, Eguberriak 89 Kulturaldia. 16,30etan, "Aterix en Bretagne" filmearen emanaldia haurrentzat eta 19,00etan "Karlsten Kronika" filmearena El Pilar zineman.

- **Erratzu**, Gau-Pasa frontoian Xorroxin Irratiak antolatuta. "Delirium Tremens" eta "M-ak" taldeekin.

7 IGANDEA

- **Elizondo**, Eguberriak 89 Kulturaldia. 12,30etan, "B.B. II. Milla Lasterketa" eta 17,00etan, "Dantza eta Folklore" ekitaldia El Pilar Zineman.

9 ASTEARTEA

- **Bera**, 18,00etan, Euskara Batzordearen bilera.

11 ORTZEGUNA

- **Arantza**, 18,00etan, Euskara Batzordearen bilera.

17 ASTEAZKENA

- **Goizueta**, 18,00etan, Euskara Batzordearen bilera.

19 ORTZIRALA

- **Etxalar**, 19,00etan, Euskara Batzordearen bilera.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- **Urtarrilaren 6-7an**, Lesaka, Ituren, F. Iturralde (Elizondo)

- **Urtarrilaren 13-14an**, Etxalar, F. Lezaun (Elizondo)

LEHIAKETAK

- Berako Gure Txokoa Elkar-teak antolaturik, *Haur Ipuien XVIII. Bera Sariketa* eta 16 urtetik gorakoentzat den *IV. Gure Txokoa Ipuin Lehiaketa* zabalduta dade. Bai bata zein bertzer aurrez-tu nahi diren lanak, urtarrilaren 15erako Gure Txokoa Elkar-tera bidali beharko dira. Parte hartu ahal izateko oinarrien berri izan nahi duenak, 630314 telefonoan xehetasun gehiago emanen diote.



ETXEGARAI *Telebistak eta Bideoak*

ELEKTROGAILUAK

BIDEO KLUBA

Eztegara 4, Tfnoa: 630570 BERA

*Antena kolektiboak eta
banakakoak*

Konponketa tailerra



MALDARREKA S.A.

EHORZKETA ZERBITZUAK

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

**PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK**

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



ERLOJU ETA BITXI DENDAK

Legia 1, BERA Tfnoa: 630751 Merkatua k. DONEZTEBE
KONPONKETAK EGITEN DIRA

ERRESPETOA... baina erdaldunei

Gaur eguerdian herriko albin-tea etorri zait paper batekin: nik Herriko Etxera egindako idazkia-ren erantzuna zekarkidan. Begira-tu eta, euskaraz eta erdaraz, bieta-ra idatzia zegoen Udalaren pape-ra.

Harriturik gelditu naiz. Lan eskasian ote daude Herriko E-txean? Izan ere, nik euskaraz, eus-kara hutsez idatzi nion Udalbatza-ri. Eta honek erdaraz eta euskaraz erantzuteko lana hartu du. Edo eta, legearengatik ote da, goiko legeak hala behartzen duelako? Lehen horrela zen, euskara era-biltzea debekatuta egondu da ur-tetan. Orain ordea, hori aldatu da eta euskaraz, euskara hutsez ere, lurralde honetan bederen egiten ahal dugu.


Errespetoarengatik izanen da, behar bada, gogoratu zait orduan. Euskaraz ez dakitenengatik idatzi izanen didate bietara, agian. Bai-na idatzia neretzat soilik da. Bai baina, halere bietara erantzunez denenganako begiramenduz joka-tu nahirik edo.

Eta noiz hasi behar dute eus-kaldunak errespetatzen? Noiz ikusi behar dugu euskaldunoi zor zai-gun begiramendua? Noiz bukatu behar du euskaldunok gure he-rrian eta gure lurrean kanpotartzat hartze hori?

A. ITURRALDE

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzita-ko 30 lerro baino gehiago ezin deza-kete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidali-ko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.

ESKUTITZAK



B RADIO
BIDASOA

SUKALDE ALTZARIAK

Legia, 42 Tfnoa: 630377 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA KONPONKETAK

OSKORRI

LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK

BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

Zer iduritzen zaizu Baztandarren Biltzarrak eguberri hauetarako antolatu dituen Kultur, kirol eta zine emanaldiak?

Elizondon egina



Pakita Otxandorena, 42 urteko Elizondoarra eta lanbidez etxekoandrea.

Ez dut deus aditu, egunotan ez baitut irratirik paratu eta. Halere astirik izanez gero, beharbada agertuko nintzateke zerbait ikusterat.



Bautista Lertxundi, 44 urtekoa eta Iruritan bizi den langilea.

Bai, zera bainan... ez dut horren berririk ez. Halere, ongi da holako gauzak egitea; orai oportetan hurrek denbora libre auzarki izaten dute eta, ongi da.




Mikel Bakero, 17 urteko Elizondoarra, Lanbide Eskolan ikasten ari dena.

Bueno, ongi iduritzen zait. Orai arte urtero egiten duten gauza da eta hori gauza ona da. Bertzenaz, pentsa ze tristea izanen zen ezta! Nik zera ikusi nahi nuke... bai, orai berriki egin duten hori ikusteko gogoia dut... *Ke arteko egunak.*



Mertxe Mariezkurrena, 14 urteko Urroztarra, Lanbide Eskolan ikasten ari dena.

Ez nekien bazirenik ere. Dena den interesatua iduritu zait, Urrotzen ez baitugu horrelako aukerarik, Doneztebeko zinea aparte utzita, noski.



GOIZUETA KIROLAK

Kirolak
Mendi Artikuluak

Beheko Plaza, 10 LESAKA



★ KIXKUR ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa: 637429 LESAKA

GAI A

Hilean behin mediku naturistarekin kontsulta
Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA

OSASUN-DENDA
BELARRAK
DIETETIKA
EDERGAIK



SUTEAK BIDASOALDEAN



NAVARRA HOY
(1989-12-18)

(...) Zortzi udalerritara zabaldu zen sutea, hau da; Elgorriaga, Igantzi, Etxalar, Ituren, Arantza, Lesaka, Bera eta Sunbillara (...) Aladino Colin Barne Kontseilariak dioenez, ez da sutearen jatorria oraindik orain eza-gutzen eta hipotesi ezberdinak erabiltzen dira; axolagabe baten ekintza edo eta sasien erreketaren ondorioz (...) Haizearen indarra, sutea zabaldu eta haunditzearen faktore bat izan zen, azken garaioetako lehortea ere lagungarri gertatu zelarik (...) Inguruko 400en bat boluntario ibili ziren sua itzaltzen (...)

NAVARRA HOY
(1989-12-19)

(...) 800 hektarea inguru, gehienak komunalak, izan dira Etxalarko

mendietan sutearen eraginez kaltetu direnak, 350.000 zuhaitz erreta utziz. Horretaz aparte, 10 ardiborda eta hainbat ardi eta behor ere erre ziren. (...)

NAVARRA HOY
(1989-12-20)

(...) Igantzin 250 hektarea, komunalak zein partikularrak, izan dira erre direnak. Aipatu behar bertalde, Minetako alderdian, B. Maritxalaren 2 kamioi erre zirela. (...)

NAVARRA HOY
(1989-12-21)

(...) Erretako lurraldea berehala birlandatzea bultzatuko du Nafarroako Gobernuak, zonalde honetako alkateekin egin zuen bileraren ondoren, Urralburu lehendakariak azpi-

marratu zuenez. (...) Kaltetuak izan diren zuhaitzak saltzeko Gobernuak laguntza eskeini du, merkatuak zura-ren prezioak ez ditzan ito eta herrietako haziendek oraindik gehiago gal ez dezaten. (...) Udalei ondasun hau galtzeak ekarriko dien ondorio ekonomikoak ikertzeko eta laguntzeko konpromezua hartzen du Nafarroako Gobernuak. (...)

EGIN
(1989-12-21)

(...) Gobernuak, kaltetuak izan diren 2.500 hektareak ez ditu *hondamendi eremua* izendatuko, kaltetutako gehiena eremu publikoan dagoelako. (...)

Lara

MUSIKA DENDA

ESKEINTZA BEREZIAK

Gitarrak, Baxuak eta anplifikadoreak
San Esteban 37 Tfnoa: 631059 BERA

BEKO-ERROTA

Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 637826
LESAKA

ttipi-ttapa

63 11 88

Bortzirietako I. Euskararen Astearen zenbait ekitaldi Beran egin ziren



ROMAN HARRIBILLAGA

Berako Herriko Etxean, SIADECOK buruturiko azterketa soziolinguistikoa-
ren aurkezpenarekin, eman zitzaion
hasiera iragan abenduaren 18an, Euska-
rarako Mankomunitatearen babesaz, Eus-
kara Bateratzailearen zuzendaritzapean
eta Euskara Batzordekideen laguntzaz
garatu den "Bortzirietako I. Euskararen
Astea"ren egitarauari.

Bertan egon ziren Mankomunitate-
aren Lehendakari eta Arantzako Alkatea
den Josu Larretxea, Bortzirietako Euska-
ra Bateratzaile, Jon Gorrotxategi baita
SIADECOn lana zuzendu duen Iñaki
Larrañaga soziologoa eta Tolosako Udal

Euskara Zerbitzuko arduradun den Kike
Amunarritz.

Egintza horren ondotik, abenduaren
20an, Berako Herriko Etxean ere, "Ama
begira zazu" lana antzestua izan zen;
21ean, Igantziko Biltokin Andu Ler-
txundik zuzendutako "Hamaseigarrenean
aidanez" filmearen emanaldia; 22an,
Lesakako Herriko Etxean, Joserra Gar-
tzia, Jokin Sorozabala eta Fito Rodriguez...
etabarrekin bertsolaritzari buruzko ma-
hai ingurua; 23an, arratsaldeko 3,30etan
herri bereko karriketan haur jokoak, tri-
kiti eta txaranga musikarekin, gero arrat-
sean Kasinon Herri Afaria eta dantzal-
dia; bukatzeko, urtarilaren 3an, Etxala-
rren, txotxongilo emanaldia, Bilboko
"Kobaia" taldearen eskutik.



■ DYAk antenna berria Laru- nen

Inguruekiko igortze-saioak hobetu
asmoz, Errepideetarako Laguntza
Elkarteak, DYAk alegia, errepika-
gailu bat eraikitzeko, Larun mendi
gailurrean kokaturiko 8mko herri-
lur zatia uztea erabaki du Udalba-
tzak. Adierazitako helburua inoiz
aldutuko balitz, eskubide guztiak
galdutzat emanen lirateke.

■ 202.828.753 pezetatako au- rrekontua du ur ekarketa berriak

"Mariezkurrena Eraikintzak,
S.L."ari Matxain edo Arregi alder-
ditik ur ekarketa lanak 202.828.753
pezetatako aurrekontuan, BEZa
gain, erabateko adjudikazioa egin
zaio.

■ Eztegarra ibilbidean, telefo- no kabina berria jartzea es- katu da

Berako Herri Batasunaren Udal-
taldekide den Jose Angel Altzugu-
renen eskariaz, Eztegarra ibilbidean,
frontoiaren ondoan, telefono kabi-
na bat jar dezala "Telefónica
Elkartea"ri eskatu dio udalak.

■ Su itzalketarako mate- rialea erosi da

Sutei aurre egin asmoz, Udalak mi-
lioni bat inguruko dirutzaz su itzal-
keta lanak burutu ahal izateko ma-
teriale eta tresneria erosi du.

Berarekin zerikusia duten berriak
bilduko dira

Hedakuntza haundiagoa duten
egunkarietan urte osoan Bera he-
rriarekin zerikusirik duten berri
bilduma lanak 75.000 pezetatan
eginen dituen "Grupo de Servicios
Izaga" delakoaren eskeintza onar-
tua izan da.

■ Telefaxa jarriko dute He- rriko Etxean

Bere arduralaritz lanetarako, Uda-
lak Sanyo S-200 ereduako telefaxa
erabaki du.

Bortzirietako intsumiso eta kontzientzia eragozleen aldeko udal-akordioa

Bortzirietako intsumiso eta kontzientzia eragozle taldeak igorritako proposamena -Soldadutzari gaitzespena, indarrean dagoen Kontzientzia Eragozpen Legeari gaitzespena, lege honen bitartez zapalduak gertatuko diren eragozleei laguntza eman, Zerbitzu Militarra egitea beharrezkoa den bitartean Justizi Mi-

nistaritzarekin Udalak dituen harremanak eten eta lerrokatze lanak utzi, eragotz dezaten Berako gazteei gonbida luzatu eta akordio honen kopia Defentsa eta Justizi ministeritza, Kontzientzia Eragozpenerako Nazio Kontseilua eta komunikabideei igortzea- aho batez onartu.

■ Berako mapak salgai

Oiartzungo Bailerako Izadi Elkar-teak, OBIEk, Bera lurraldearen mapa burutu ondoren, 1989ko abenduaren erdi aldera M. Jesus Diaz, Igone eta Elkar paperdendentan, 700 pezetatan -tolesgarri eta mural eratan- salgai jarri zuen.

■ Olentzeroak

Ohiturari jarraituz, abenduaren 24ean, arrasaldean Udal Plazan Olentzero talde gazteen ekitaldiak ospatu ziren. Bakoitzaren izenak hauek dira: "Txotxongiloak", "Sagutxoak", "Ipotxak", "Iturlandeta", "Kriskitinak", "Potokiak", "Elurrak", "Gustagarriak", "Ikazkinak" eta "Berezoak". Helduen Olentzeroa berri, egun bereko arratsaldeko seietan, lamoteneatik

LESACA



L.L.ko asanblada PYC Lesakan mantentzearen alde

M.K.T.

Azken hilabete hauetan AHVren politikaren barruan, L.L.ko PYC saila Lesakatik Bilbora eramatea iragar-

tzen da, eta horren ondorioz, lanpostu horiek Lesakatik desagertaraziko liratekeen. Hau dela eta sail honetako langileak zenbait ekintza burutu dituzte zuzendaritzaren aurrean.

Joan den 19an L.L.ko LAB, ESK-CUIS eta CCOOeko indar sindikalak asanblada batetara konbokatu zuten langilegoa. ELAk ez zuen deitu eta hasiera batetan trasladoen aurka bazegoen ere, orain bere jokaera aldatu du. Aipatutako sail hau bertan gera dadin eta honetarako egin behar diren ekintzetaz mintzatzeko bildu ziren asanbladan.

Sindikatuaren ustetan, zuzendaritza modu prepotentez ari da jokatzeko eta orain PYCekin egiten duena gero beste sail batekin egin dezake.

Honez gain, AHVko kontseilari delegatua den Antolin Jauna, Balduz Industria kontseilaria eta inguruko alkateekin hizketatu zen, Lesakako Laminazioetan plantilla mantenduko dela adierazi zuelarik.

Inoiz ezagutu den suterik haundiena

PELLO APEZETXEA

Abenduaren 16a ez zaie etxalar-tarrei aisa atzenduko. Igantziko partean sutea bazela eta, eguerdiz kea barra-barra hedatzen joan zen, zenbait mendi eta beraietako borda estaliz. Urritzokieta eta Larrapil auzoak kepean eta geroago sutearen menean egondu ziren. Eta baserri batzu nahiko larri: jendeak eta haziendak hatsa hartzeko neketan. Asteburutar batek baino gehiagok baserria itxi eta alde egitea erabaki zuen. Larritasun momentu nabariak jasana, Landaburuko Borda dugu: argi indar harietatik sortutako suak etxe ondoko arbola hartu zuenean. Kea eta sua Mendixorrotx eta Azkua aldean nagusituz joan zen; han geldierazi zizaion. Bainan karrikan ere kezka haunditzen zihoan, gero eta ke lodiagoa sarlzen ari zelarik; etxeak utzita ihes egin beharko ote genuen pentsatzeraino. *Azken juizio eguna ote dugu?* zioen adineko gizon batek. Hain berezia eta inoiz ez ikusia baitzen suteen eta kearen espektakulua.

Ondorioak astiaz neurtuko badira ere, pinadi, bagadi gazte eta arruporda saila erraustuak aipa ditzakegu, eta aunitz hektarea zola hondamena jasan duena: lur gaineko lugorotza, hazia eta zaina deuseztuak gelditu direnez, bazka eta planta berri ahal izateko denbora luzea beharko du, seguru aski. Milaren bat hektarea behinpehin suak zigortuak. Eta zenbat ardi eta behor itoak edota amilduak? Haizeak eramandako teilatuak ere bai.

Gerorako baliagarri izan ahal da kigun, azterketa on samarra beharrezkoa izan daiteke, agian, eta zenbait galderari erantzuna ematen ahal legindu. Zergatik eta nola sortu eta zabaldu da sua? Ez luke suhiltzaile eta jende prestatu gehiago izan beharko? Herriak horrelako ezbeharretan zaintzeko nolako bitartekoak dauzka Nafarroako Gobernuak? Nola lortu, larre erreketak egiterakoan jendeak kasu haundiago eman dezan? Argi indarreko hariak behar litzatekeen mailan antolatuak ote daude?

■ Zahar Etxea irekitzeko pausu berria eman da

Aspaldixkotik pentsatuta dagoen Zahar Etxea irekitzeko pauso berririk eman da. Udalak, Birjinia Arburua kontzejala izendatu du, zenbait oztopo gainditu eta prestaketaz jabe dadin; hala-nola, Hezkuntza Ministeritzatik baimena lortu, beraren esku daudenez gero ospitale izaneko bizilekuak; garbiketa eta moldaketa lanak burutu eta tresneriaz hornitu. Bakarrik gelditzen diren zaharrei jatera eman, eta lo egiteko lekua eskeini ere eskeini niko zaie.



Suteak Igantziko mendiak bete betean jo

OSKAR TXOPERENA

Sunbilla aldean sortutako suteak erdiz-erdi hartu zituen Igantziko mendiak. Hainbat urtez gordetako altxorra, egun pare batez aintzinean eraman zuen suak. Negargarria da benetan gertatu dena eta zaharrenek ere ez

dute horrelakorik inoiz ezagutu. Orain, zenbat urte beharko diren hau berreskuratzeko da kezkarik nagusia. Dena den jendearen erantzuna ona izan zen, talde haundiak bildu baitziren sua itzali nahian.

■ Katastro berria egiteko mendiak neurtzen

Nafarroako Gobernuaren Mendi Saileko bi langile mendiko larreen neurketa egiten hasiak dira. Horretarako, jabeak banan-banan deitzen dituzte beren lurren mugariak zehazteko. Badirudi guzti honekin aspaldiko arazo hau, nahiko ongi bideratua geldituko dela.

Igantzik biltokiri aurpegi berria jarri diote

Lan izugarri estimagarria egin du orain Biltokin dagoen Juntak. Elkarteko gela ezin politago paratu dute obrak egin ondoren. Obrak igeltsero batzuk egin dituzte baina beti bezala bazkideek, gutxi batzuk beti bezala, lan haundia egin behar izan dute.

Jakina da Biltoki herriko mugimendu guztiaren bihotza dela, han juntatzen baita jendea zerbait antolatu nahi duelarik edo

bertzerik gabe lagun artean tartetxo atsegin bat pasatu nahi duenean. Orain, egoitza moldatu ondoren, Igantzik kultur, kirol etabarren aintzindari izateari ekin beharko lioke. Garbi ikusten da Igantzin gai hauetan astindu aldi baten beharra, eta ezin egokiagoa litzateke Biltokik bideratzea.

Fraingo errepikagailurako errepide berria

Hasiak dira dagoeneko pista berriaren obrak. Urte beteko harat-honatak

behar izan dira hartu behar dituen lurak garbi gera daitezen, baina guzti hauek moldatu ondoren ekin diote lanari "Chantre"ko langileek.

Mendi estrategikoa bihurtu da Frain azken urte hauetan. Bortzirietako erdi-erdian dagoenez eta bistan dauzkanez bortzak, lekuri egokiena da komunikaziotarako gailuak jartzeko. Horregatik daude bertan TVEren antenak, Igantzi eta Arantzarako ETBren antena, DYArene e.a. Zerbitzu guzti hauek hobetzeko izan dadila pista berria eta ez mendiaren kalterako.

ARANTZA**104 Kiloko basurdea ehizatu dute**

JON LARRETXEA

Aspaldian ez zen Arantza inguruan basurde aunitzik ikusten baina badirudi bakar batzuk badaudela. Orain berriki, Arantzako talde batek sekulako basurde aketza hil zuten, 104 kilokoa hain zuzen ere.

Nekazaritza ekologikoko ikastaroa bukatu da

Herriko eskoletan eman den ikastaro honen helburua, teknika eta filosofikologikoko batetik abiatuz lurra lantzeko oinarritzko ezagutzak ematea zen. Irakasleak tekniko ari-

tuak ziren eta erran behar da interes izugarria azaldu zutela. Beraz, oraindik arlo hau deus gutti landu bada ere badirudi indar haundiz datorren filosofia dela eta etorkizunean izanen duela zer eginik.


Ikastaroari, Aterpen egindako bazkari eder batez eman zitzaion bukaera.

Antton Maiz, eskuz binakako txapelketan parte hartzaile

Herritarra dugun Antton Maiz, eskuz binakako txapelketan ari da

parte hartzen; Bergara Etxalartarra lagun duelarik. Orain arte aski partidu ederrak jokatu dituzte.

Lehenengoa Tolosa-Esnaolaren aurka 22-21 irabaziz; bigarrena Retegi-Errandonearen aurka 22-21 galduz, hirugarrena berriz Tolosa-Esnaolaren aurka 22-16 galduz baita. Orain Retegi-Errandonearen aurka jokatu dute. Partidu hau irabaziz gero erdi finalerara pasatuko dira.



Hasi dira Bear-Zana frontoiaren berritze lanak

TXEMA ALDABE

Hasi berriak dira Doneztebeko Bear-Zana frontoi zaharraren berritze lanak. Hainbertze urtez iraun duten pareta eta zolak, honez gero hondatu samarrak zeuden. Orain dela gutti arte, bertan jokatzeko zuten pilotan aritu nahi zutenek edozein zela modalitatea. Frontoi berria eraiki zenean, Bear-Zana gutti erabilia izan da pilota arloan, batez ere zolak zituen artaka eta pilotak egiten zituen bote okerregatik. Badirudi oraingo honetan, izandako ospea eta erabilera berriro ere lortuko dituela moldatze lan honekin.

Zola, aintzin pareta eta ezker paretaz gain, goiko sareak eta jarlekuak ere moldatuko dira; 8.500.00 pzta. inguru gastatuko delarik berritze lanetan.

Honetaz gain frontoi berriaren teilatua ere, uralita zati berriak paratuko dira. Azkeneko haize bolada gogorak zenbait uralita puska eraman bait zituen.

Bertzalde, azkenean badirudi Elgorriagako zubi berriaren moldatze lana akituko dutela. Jendearen nazka eta haserre nabarmena zen lan honen iraupen luzea zela eta.

■ Kontzientzi eza nabarmena Udalaren aldetik musika eskola dela eta

Musika eskola honen ardura eta martxa, batzorde baten eskutan dago. Batzorde hau, 2 udal ordezkari, 2 guraso eta 2 irakaslez osaturik dago. Teorian ez bazuen zergatik hala izan behar ere, ikastaroa, garestiegia da haurren gurasoentzat. Horregatik, kezka ti agertzen dira batzordekideak.

Horren arrazoia zera da: Nafarroako Gobernuak ez duela ematen dagokion diru laguntza. Dirudienez, Nafarroan, musika eskoletako gastuak Gobernuak, Udal eta gurasoen artean ordaindu behar dira, bakoitzak hirutik bateko gastuak, hau da; %33a.

PATXI PETRIRENA

Bertsolari afaria atzeratu

Abenduaren 16rako Malerrekako Euskara Zerbitzuak eta Sunbillako Ulibeltza Elkartek antolatutako bertsolari afaria bertan behera gelditu zen sutearengatik. Hala ere, espero da hildakoen antzeko ekitaldiren bat egitea, inauterietan agian.

Zerri "puxka" analizatu behar da

Bete betean zerri-hiltze garaian sartuak garenez, zonaldeko osasun zerbitzuak dei berezia egiten dute haragi "puxka" analizatu edo aztertzeke, trikinosis delako gaitza oraindik agertzen baita zenbaitetan. Doneztebeko Osasun Zentruak horretarako jarriak dituen egunak hauek dira: astelehena, asteazkena, ortzirala eta larunbata, goizeko 8etatik 12etara.

Ikastolako zozketan saritutako zenbakia

Abenduaren 22an egin zen Ikastolan eguberrietako saski eder baten zozketa eta 0218 zenbakiari egokitu zitzaion saria. Ibarburukoak izan ziren zortedunak.

ITUREN



Itauterien data errege bezperan jarriko da

IBAN ISASI

Ituren eta Zubietako itauterien data datorren urtarrilaren 5ean jarriko da. Horretarako, Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunak bilduko dira

Iturenen eta itauteriak ospatzeko eguna zehaztuko dute. Aurtien ere giro polita izanen dela espero da.

Aurtizko ostatuko obrak bukatzeaz

Poliki-poliki aurrera doaz Aurtizko ostatuan egiten ari diren obrak eta

bukatzeko, azkeneko pisua, kanpoko balkoia eta kanpotik zein barnetik pintatzea falta da bakarrik. Aipatu behar, ostatu hau Aurtizko jaietan ireki zela jadanik.

Lasagako ur arazoa konponbidean


Azkenean, Lasaga auzokoak eta Udala, akordio batetara ailegatu dira auzo honetako ur arazoak moldatzeko. Gauzak horrela, Nafarroako Gobernua eskeintzen duen diru laguntzaz baliatuko dira obrak egiteko.

Lau langile udalarentzat lanean

Abenduan lanean hasi ziren lau langile hauek eginbeharreko lanak, berteak berte, honako hauek dira:

- Eliz-bidea moldatzea
- Itturnaldetik datorren errekatxoaren garbiketa
- Lasaga eta Aurtitz batzen dituen Argisurrako bidearen hobetzea

ZUBIETA



Berrikuntzak egingo dira Herriko Etxean

JUAINAS

Den dena ongi suertatuko balitz, horrela espero baita, urte baten barnean gisa honetako Herriko Etxe eza-guna... horrelakoa izanen da. Eta barnekoa zer esanik ez!

Errotako Soziedadearen bilera

Ale hau eskuartean izan orduko - Lazarok kultura izaten duen bezala - Errege bezpera ospatzen ariko zarete: majooo! Ez gero atzendu, bederen, Errotako Soziedadearen bilera dela, erabakiak hartu behar direla eta saldak... ona baldin bada ere, ez duela mirakulurik egiten.

Olentzeroren mixeriak

KORO IRAZOKI

Lehen, duela aunitz urte, 24eko gauean Urbiatik beheiti agertzen omen zen gizon tripaundi pipadun bat eta herrian karrikaz-karrika ibiltzen omen zen berri bat ematen: hantxe, Belen izena zuen herri ttiki batean Jesus sortua zela. Herriko jendeak hori eskertu nahiez eta gizonaren gormantasuna ezagutuz saskia gauza goxoez betetzen zioten (odolki, gasna, opila, ardoa...) eta herri guztian ibili ondoren, berriz Urbia goiti bueltatzen zen ondoko urteraino despedituz. Gizon hori OLENTZERO zen.

Bainan hau duela aunitz urteko ixtorioa da, eta gaur egun ohitura ez galtzeko eta nolazpaite berriz Olentzero herriko karriketan ikusi nahiez, haurrek egiten dute beren gisan Olentzero potolo eta pollit bat: arropa zahar batzuekin jauntziz gorputza lastoz loditzen diote, kapelu haundi eta pipa bat, zurezko kadira batean jarrita, eta nola ez, zartaina eta ardo botoila ondoan eremanez.

Aurten ordea problema ttiki bat izan dute: Olentzero majo-majoa plantatua zuten ia duela hilabete bat lehen eta Elizargietako gibleko aldean lo egiten utzia. Eta suertatu zen egun horietatik batean, autobusez etorri zirela jende gazte andana bat eta Elizargietan bazkaldu zutela. Gehiago ez dakigu, bainan hauen ondotik Olentzero gaixoa hondatuta agertu zen, tripak kanpoan, buruan lurrean arrairdua...

Gure herriko haurrak lehenbizian biziki haserretu ziren hura ikusi eta; bainan segidoan animoz hartu eta berriz ere konpondu zuten, lehen baino pollitagoa utziaz eta Etxeaundian gorde zuten, 24eko arratsaldea ailegatu arte.



Lezeen subasta

Duela 6 urtetik hunat lezeetako sarrera ordaintzen da. Lan hau egiteko Udalak subasta bat egiten du urte guztirako norbaite, kondizione batzuekin, leze zaintzaile izateko.

Abenduaren 14ean bukatu zen subastarat aurkezteko epea. Baldintzak, hauexek ziren:

- Garbitasuna zaintzailearen gain.

- Argi eta inprenta gastuak, Udal eta zaintzailearen artean erdi bana.

- Udalak hartzen ditu beretakoz urtean 3 egun: ekaineko gau-pasa, Zikiro eguna eta refeta igandea.

- Biltzen den dirutik, hasieran, 100etik 35 zaintzailearendakoz izanen da. Enkantea kantitate hunen gain egingen da.



Aipatu behar baita ere, abenduaren 24ean Pello eta Ramonen omenez, Auza mendian beren lagunek egin-dako monolito bat inauguratu zela.

Hiru guardentzako lan-postu deialdia

Abenduaren 23an hasi eta Hil-beltzaren 23rarteko epea dute, deial-di honetara aurkeztu nahi dutenek. Aurkeztu ahal izaitzeko baldintzen ze-rrenda, Balleko Etxean dago ikusgai eta izendatuak suertatzen direnak, Udal-funtzionario bihurtuko dira.

Eguberri 89, Baztandarren Biltzarrak antolatu-tako kulturaldi xarmanta

XORROXIN IRRATIA

Orai dela hamar urtetik honat Baz-tandarren Biltzarrak urtero antola-tzen duen kulturaldiari, abenduaren 17an eman zitzaion hasiera eta hila-bete honen 21a bitartean, hainbat filmeren emanaldi, hitzaldi, mahai-inguru, folklore eta kirol ekitaldiz

xarmanki hornitua egonen da. Aur-tengoan, Baztango Mendigoizale eta Dantzarien laguntza izanen dute eki-taldi guzti horien antolakuntzan:

Garrantzia izugarrie du gisa honeta-ko kulturaldien antolatzeak, izan ere, Baztandarrok urte osoan ez bait dugu bertze aukerarik Baztandik atera gabe zinea hementxe bertan ikusteko.

Filmeak *El Pilar* zineman emanen dira eta Amaiur, Lekarotz eta Gar-tzainen ere bideoak eskeiniko dira.



640.375.811 pezetatako aurrekontua infraestruktura lan ezberdinak eta Erasoteko zubi berria egiteko

J.M.I.

Hirurteko plangintza honen arabera, honako obra hauek egin asmo dira: 137.869.001 pzta., ur ekarketa eta ur zikinen sarea berrizatzeko; 197.709.317 pzta., kaleetako zola eta argi instalazioen prestatze lanak egiteko; 57.517.444 pzta., kaleetako argiak jartzeko; 202.333.945 pzta., baserrietarako pistak breaztatzeko eta 4.902.578 pzta., udaletxeko terrazak moldatzeko.

Euskaraz idazten eta irakurtzen ikasteko ikastaro berriak hastear

Leitzako Euskaltegia (IKA)k antolatuturik, ekainerarte iraunen duten bi ikastaro mota ezberdini emango zaio hasiera hilabete honetan. Biak ere, euskaraz hitzegiten dakitenentzat pentsatuak daude eta beraien helburuetariko bat, euskaraz hitzegiten dakitenek idazten eta irakurtzen ere trebatzea da.

Leitzako Euskaltegiko irakasleek adierazi digutenez, bi ikastaroak horrela banatuko dira: bata larunbatetan 4 orduz (EGA taldea) eta bestea astean zehar



burutuko dena. Azken hau, eskola eta ikastolako gurasoei zuzenduta dago bereziki -diote irakasleek-; kontutan hartuz batez ere, guraso hauen hurrek euskaraz egiten ari dituztela beraien ikasketak eta jakina, arrunt interesgarria litzatekeela seme-alabei ikasketetan laguntzen dieten bitartean, gurasoen euskara maila ere bidebatez osatzea eta hobetzea irakurtzen eta idazten ikasiz.

Beraz badakizue, interesaturik bazaude-te oraindik ere apunta zaitezke.

Txapelketak arrakasta haundia futboltzaleen artean

Hiru txapelketa jokatzen dira urtean zehar Leitzan: udakoa Inguruarte zelaian; negukoa eskola komarkaleko harrizko

zelaian eta honen ondoren, frontoi estalian, futbito txapelketa.

Negukoan 6 taldek parte hartu dute: Akerrak, Abintestato, Azkarrillo, Juan txinho, Zingurutxo eta Kaxiano. Lerro hauek idatzi zirenean, honako behin-behineko klasifikazioa agertzen zuten: 1ko. Albintestato, 2. Zingurutxo, 3. Kaxiano, 4. Azkarrillo, 5. Juantxinho eta 6. Akerrak.

Aipatu behar bukatzeko, 6 talde hauek astez-aste erakutsi duten maila politikak eta joku azkar eta garbiak, futboltzale ugari erakarri duela partiduetara.

GOIZUETA

Junta berritzea Guraso Elkartean

KORO ETXEBERRIA

Abenduaren 20an izan zen Guraso Elkarteko Junta berritzeko hauteskundeak. Aipatutako Junta, zortzi bikotek osatzen dute. Orain, lau atera eta beste lau sartu egin dira.

Honako bikote hauek izan dira aukeratuak suertatu direnak: Roke Taber-



na eta M. Carmen Etxeberria; Luis Apezetxea eta Anuntxi Mutuberria; Jokin Loiarre eta Iosune Ansa; Luis Azurmendi eta Itziar Eskudero.

Euskara Batzordea, euskararen alde lanean aritzeko prest

Euskara Batzordea, euskararen normalizazio bideak jorratzea eta lantzea du helburutzat, saiakera horretan, hainbat herritar eta erakundeen ahalegina biltzen duelarik. Horiek horrela, honako adierazpen

hauek jakitera eman nahi dizkie herritar guztiei: "Euskararen normalizazioak, goizuetako herrian esanahi zehatza eta helburu konkretuak ditu: Lehenik eta behin, euskaraz bizitzeko aukerarik ez daukatenei, gure Goizuetako gizarte euskaldun honetan euskaraz mintzatzen ez direlako, bere integrazio osoa lortzeko bideak erreztu; hitz batez, *euskaldundu*. Beraz, -diote Euskara Batzordekoak hori lortzeko gure laguntza guztia izango dute, baita ekonomikoa ere.

Bigarrenik, gaur egungo gizartean aipatzea alperrik den arrazoiengatik, dena gure hizkuntzaz egiteko gai izan

behar dugu. Hortarako behar ditugun tresnak eskuratzen saiatu gara; hitz batez: *alfabetatu*.

Orain arte pertsona mailan finkatu baditugu bi helburu hauek, -darraita beren adierazpenean- gizarte mailan ere beste garrantzi haundiko helburuari ekin behar diogu gogorki: orain arte gure hizkuntza bazterturik egon den esparru eta erakunde publiko horietan sartu eta zabaldu, denontzako ejenplu izan dadin".

Batzorde hau nahi duen guztiari irekia dagoela eta bertan parte hartzera gonbidatuz bukatzen dute Euskara Batzordekoak.

EZKONTZAK

Juan B. Genua-Ana Larrañaga (Etxalartarra eta Donostiarra) abenduaren 23an.

Juan C. Retegi-Esperanza Anzizar (Igantziarra eta Lesakarra) Abenduaren 2an.

Jose M. Gorosterrazu-M. Jesus Elizagoien (Iturendarra eta arraioztarra), Abenduaren 9an.

Jose I. Campos-M. Dolores Azpiroz (Zarauztarra eta Leitza), Abenduaren 2an.

JAIoTZAK

Julen Jimenez de Andrés, Beratarra, Abenduan

Ainhoa Petrirena insausti, Sunbildarra, Abenduaren 11an.

Garikoitz Juanena Andiarena, Saldiastrarra.

Maite Erasun Berasain, Saldiastrarra.

M. Inmaculada Torres Cordoba, Elizondokoa, Abenduaren 8an

Garikoitz Oskoz Etxandi, Elizondokoa, Abenduaren 16an.

Iñigo Otermin Esperaz, Irurita, Abenduaren 8an.

HERIOTZAK

Manuel Frago Lopez, Lesakakoa, Abenduaren 1ean, 23 urte.

Mercedes Agirre Lairez, Etxalarkoa, Abenduaren 11n, 83 urte.

Jose Etxabide Irigoien, Lesakakoa, Abenduaren 11n, 69 urte.

Juanita Arburua Sanzberro, Etxalarkoa, 12an, 75 urte.

Martina Bera, Iturengoa, Abenduaren 10ean.

Fermina Setuain Enamoreta, Doneztebekoa, 65 urte.

M. Jesus Irungarai Barreneixe, Anizkoa, 75 urte.

Maria Telletxea Belarra, Saldiaskoa, Abenduaren 1ean.

Felipe J. Galarregi Meaka, Oronozkoa, Abenduaren 3an.

M. Francisco Mendiburu Bergara, Zigakoa, Abenduaren 6an.

Antonio Lekuona Gonzalez, Elizondokoa, Abenduaren 15ean.

Gauzak pil-pilean soldaduzka dela eta

**Soldaduzka dela eta
ez dela azkenaldi
honetan eztabaida
indartuz joan da.
Horra hor frogatzat
urrian izandako
hauteskundeak.
Soldaduzkaren
arazoa partidu
guzien mintzaldi eta
“eskeintzetan” agertu
zaigularik.**



Nork ematen du gehiago!

Gai honek gazteen artean, eta orohar gizartean, sortzen duen errefusaz oharturik, “eskeintza” horiek ez dira nolanahikoak izan, zein baino zein “progresistago” agertu nahiez batzuk soldaduzka sei hila-betetara mugatzea proposatzen baldin baziguten, bertzeak berriz, (eskeintza hobe egin nahirik) 3tara. Ausartagoak ere baziren, soldaduzkaren derrigortasuna zalantzan jarritz.

Botu arrantza galanta! Badakizue, “eguzkia nora zapiak hara”.

**“Tribunal batek
erabakiko du nor den eta
nor ez den objetore”**

Bainan funtsezko arrazoiari ez diote heldu nahi izan. Ez dute ejer-

tzitoaren beharra inoiz zalantzan paratu eta hauxe da mugimendu antimilitaristak bereziki plazaratzen eta luzatzen zien erronka.

Halere bazter harrotze hau ez da alferrikakoa izan, gauzak mugitzen direnaren seinale baita.

Beti gertatu izan da herri mugimenduen eskakizun, planteamendu eta iharduera, politikoena baino aintzinago joan ohi dela. Kasu honetan gauza bera gertatzen da.

Sistimaren defendatzaile diren partiduek objezioaz eta PSS-ez (ordezko zerbitzu zibilaz) hitz egiten duten bitartean, antimilitaristak insumisioaz mintzo dira.

**Zer ezberdintasun dago
objezio eta insumisioaren
artean?**

Hau azaltzeko historia llabur bat egin dezagun. Gobernuak egindako legearen arabera (LOC), tribunal

batek objetore bakoitzaren arrazoi erlijiosoak, etikoak, moralak edo filosofikoak epaituko ditu. Epaitu eta erabakiko nor den eta nor ez den objetore.

Legeak dioenez soldaduzka egitea *aberriarekiko* (España noski) bete-beharra da. Objezioa ordea, bete-behar horren salbuespena. Ez da esku-bide bat. Ez dute objezio politikoa onartzen ezta ere soldaduzkaren barnean egin zitekeen objezioa (objeción sobrevenida).

Jehovaren lekukoak aparte utzita, objetore gehienek (6.000 inguru) *Declaración de Objeción Colectiva* delakoaren bidea hartzen dute. Horretan soldaduzka eta militarismoaren kontra agertzeaz aparte, ez da PSS-a ere onartzen. Objezio mota hau *Consejo Nacional de la Objeción de Conciencia* delakoak ez du ezagutu, baina berriki arte ez du eragotzi ere.

***"Legeak dioenez,
soldaduzka egitea
Espaniarekiko
betebeharra da"***

Intsumisioaren bidea objezio moeta hau eragoztean plazaratu da. Intsumisioen kontrako lehendabiziko gerra kontseilua Bartzelonan izan da bi intsumiso 13 hilabetetako gartzelaldira kondenatuz.

Argi dago zein den gobernuak aukeratutako bidea intsumisoentzat

zigorra, objetore *historikoentzat* (PSS-a arautzen duen legea atera baino lehen objetatu zutenak) amnistia, borroka alde batera utz dezaten.

***"Intsumisoentzat
zigorra, objetore
historikoentzat
amnistia"***

Neurri hauekin mugimenduaren deuseztapena bilatzen dute, jende gaztea beldurtu nahi dute objeta ez dezan. Guzti honen aintzinean M.A.-k intsumisioa bultzatuko du eta amnistiatutako objetorei, intsumisioen alde, autoinkulpa daitezen dei egiten die.

**Bortzirietako objetore
eta intsumisoak**

Bortzirietan bi intsumisio kasu bazirela ikusirik (bata Lesakan eta bertzea Etxalarren) joan den azaroan biltzeari ekin genion.

Hasiberriak garestu kontutan hartuz, orain arte egindako lana eta jendearen erantzuna izugarria izan da. Ez genuen horrelako erantzunik espero. Lehendabiziko pausua Etxalar, Bera eta Lesakako Herriko Etxeetan soldaduzkaren kontrako eta intsumisioen aldeko mozioak sartzea izan zen. Hiru udaletxetan oso-oso-rik onartuak izan dira.

***"Etxalar, Bera eta
Lesakako Herriko
Etxeak,
soldaduzkaren kontrako
eta intsumisioen aldeko
mozioak oso-osorik
onartu"***

Honetaz aparte soldaduzkaren deuseztapenaren aldeko agiriak elkarre, alderdi eta kultur taldeen artean banatu dira sina ditzaten. Aipamen berezia merezi du Lesakan intsumiso baten alde, Zamoranoren alde, izandako mugida, Udal Gorpuzazioa honen alde autoinkulpa dadin lortuz.


MODESTO SANSINENA



M. Arozena: "Benetan gogorra izan da neretzako Euskalerriko Txapelketa"

Manolo Arozena Goizuetako Sarrane baserrian jjaio zen duela 40 urte eta berak dioen bezala, Hamabortz urterekin atera behar izan omen zuen etxetik Añorgara lan bila eta handik Mutrikura, gaur bere emaztea dena hantxe ezagutu zuelarik. Duela hamalau urte pausatu omen zen Lesakan eta geroztik bertan bizi da, ogibidez garraiolaria delarik. Bi seme eta alaba baten aita da bera.

Manolo berandu plazaratua den arren -duela bi urte- denboraldi llabur honetan gauza frango ezagutzeko aukera izan du, bi aldiz parte hartu baitu Nafarroako Txapelketan, bietan txapeldun-orde geratu delarik eta aurren, Euskalerriko Txapelketaren erreka sakon eta urtsu horietan igeritan egin izan behar du gainera. Hauxe izan da, hain zuzen ere, gure lehen mintzagaia.



"Hemen txapelketa bitartez biltzen da jenderik gehiena"

- Zer moduzko esperientzia izan da Euskalerriko Txapelketa?

- **Manolo:** Oso gogorra izan duk Txapelketa hau neretzako. Nobatada zer den jakin diat nik aurren. Ni beti bertozale amorratua izan nauk eta hainbertze jenderen aurrean aurkitzean, behin baino gehiagotan pentsatu diat, zer egiten diat nik hemen? Batez ere deskontentu geratu nauk nere maila ere eman ez dudalako.

- **Orain, Euskalerriko Txapelketa burutu ondoren, Nafarroakoa ospatu behar. Nola zabiltzate antolakuntza lanetan?**

- Bai, azkeneko bileran hitz egin genian txapelketa nagusia pasa ondoren balorazio bat egin eta prestakuntza lanean hasi beharko genukeela. Orain hasi beharko diagu hortan. Nik gustora paso egingo nioake txapelketa antolatzeari. Pasatu berria den txapelketa kristorena izan duk eta hori gozatzen egongo ni nuake denbora gehiago baina... *Principe de Vianak* laguntza ematen dik txapelketa egiteko eta gainera, hemen txapelketa bitartez biltzen dela jenderik gehiena kontutan eduki behar diagu. Berriro ere txapelketa prestatzen hasi egin beharko diagu eta burutu ere bai, nahiz eta askotan geure buruari galdetu, zer ari gara gu hemen?

- Zer egiten da gaur egun ikastola munda Nafarroa mailan?

- Hor zegok Nafarroa osorako arduradun bat lanean. Badakik, eginahala egin arren, inola ere ezin duk iritsi astean behin eskola bakoitzara. Laguntza eskatu zian bertze pertsona baten beharra agertuz baina Gobernuak ez dik nonbait asmori inor gehiago jartzeko. Orain arte oinarri-oinarriko lana bakarrik egiten duk. Urtean behin txapelketa antzeko bat antolatzen du Iruñean, hamar bertsoen errimak bidali aurretik etxera eta gero haiekin bizpahiru bertso egiteko. Aurrera pausua izango huke gaztetxoak jende aurrean bizpahiru bertso bapatean botatzeko gai izatea. Badakik, hor lan haundia egin behar dik, ordu aunitz sartu. Landare berria sortu aurretik erein egin behar dik hazia. Behin baino gehiagotan pentsatu izan diat piskat dakiten hamarrenbat gaztetxorekin astean behin bederen bildu eta lanean hastea, baina, orain udala dela eta guzi horrekin astirik ez diat. Etzekiat, agian denborarekin zerbait egingen diagu...

- **Eta etorkizunari begira, zer asmo ditu Manolo Arozenak?**

- Euskalerriko Txapelketatik erre-erre egin atera ninduan. Gauza aunitz pentsatu nizkian Laudion agurrean erran nuen bezala:

Nere moduko bertsolaria / entzulearentzako pena, / za(ha)rtu eta gero hasi nintzen / eta horrekin erran dut dena, / Hartu orduko utzi beharko / bert-solaritzaren trena, / gazteak badatoz za(ha)rrak hor daude / ez galdu itxaropena.

Bertso hori bota nuenean guzi hori benetan pentsatzen nian, gero hasten haiz pentsatzen Nafarroan bakar batzu garela eta ez oso onak baina bakar hoiek uzten badugu deusezetan geratuko dela. Ahal den neurrian eta gure maila apa-lean segitu egin beharko diagu, Nafarroan bertsolaritza galtzera ez uzteagatik bakarrik bada ere.

Honetantxe amaitzen da gaurkoz gure solasaldia. Gauza gehiago ere erran zizkigun baina leku ezak honetan uztera bahartzen gaitu. Beraz, mila esker Manolo eta segi aintzina!

PATXI LARRETXE

ETXEBIZITZAK

- Lesaka.** Pisua salgai. Bittiria kalea-Gurutze etxea 2.C
- Bera.** Pisua salgai. Eztegar ibilbidea 19, 2.A Tfnoa: 630455
- Bera.** Pisua salgai. Eztegar ibilbidea 17, 4.D Tfnoa: 630964/257802
- Bera.** Pisua salgai. Itzean. Tfnoa: 630743
- Bera.** Baserri bat erosi edo alokatu nahi dugu. Argibideak Larrutxuki 1. Tfnoa: 630532
- Lesaka.** Pisu bat alokatu nahi dugu Lesakan. Erreferentzi onekoak izan arren, kale gorrian gaude. Deitu tfno. honetara: 637796

LANA

- Frantzes klaseak** ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 637969 Lesaka.
- EGB klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630146 Bera.
- Gitarra, baxua eta bateria klaseak** ematen dira. Interesatek hurbil zaitezte Laia musika dendara. Tfnoa: 631059

SALEROSKETAK

- Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.
- Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Interesatzen bazaizu deitu 631188 telefonora.
- Pentax argazki makina** batenztat, bigarren eskuko objetiboak nahi ditugu. 28-80mmko bat bazenu oraindik hobeki. Tfnoa: 631188
- Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenientziako prezioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Asteburutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauez.
- Erretratuak marrazten ditut.** Galdetu Xut arropa dendan. Tfnoa: 637410 Lesaka.
- Negozioa ixteagatik** likidazio osoa egiten ari gara. "Kirolak" denda, Lesaka.

DENETARIK

-**Kordioi zahar** baten bila nabil, parranda egiteko, dohain edo merke. Norbaitek edukiz gero Leitzako Euskaltegi "Ikastari"ra dei dezala. Mila esker. Fraz.

HARREMANAK

-Bortzirietako euskaltegiko irakasle kuttuna; niretzako erregalirik onena zure maitasuna litzateke. Zeure zain geratzen naiz, zuk dakizun tokian, zeuk nahi duzun arte. "**Zuk ongi dakizun hori**".

-Ligatzeko gogorik baduzue, ager zaitezte igande ilunabarrez Lesakan barna. Euskaraz mintzatzen bazarete eta ostatuz ostatu ibili, ziur topo egiten dugula. "**Ostalari bigoteduna**"

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE-KOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA

Testua:

.....

.....

.....

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

Baztan-Bidasoako mendigoizaleak elkarturik

Abenduaren 10ean ospatu zen Beran, Baztan-Bidasoako lehenengo Mendigoizaleen eguna. Goizeko 9,30etan Baztan-Maldaerreka-Leitzaran eta Bortzirietako 100en bat mendigoizaleak eman zioten hasiera Larunerako ibilaldiari, Larunen gosalduta eta Beran giro ederrean bazkaltzeko aukera izan zutelarik.

Maldaerreka eta Bortzirietan ere egin dira haurrekin bi irteera *Mendia garbi dezagun* kanpainaren barnean.

Kanpaina hau ehiza postuak kartutxoak eta zikinkeriaz garbi-



tzean datza. Datorren urterako Mendizaleok elkarrekin planifikatu dituzten aktibitate batzuk hauek dira:

Martxoaren 4ean: Aralarre-ateraldia.

Apirilaren 12tik 19ra: Mendiz trabesia bat (Baztan-Bidasoan)

Maiatzaren 20an: II Mendigoizaleen Eguna (Legate edo Abartan)

Ekainaren 3an: Kakueta-Arlasera ateraldia.

I. Pilota txapelketa jokatzeko ari da

Abenduaren 16an eman zitzaion hasiera pilota txapelketa honi, (larruzko eta gomazko pilotetaz), eta otsailararte arituko dira zonalde bakoitzeko pilotari hoberenak beren habilezia erakusten.

Partiduak joan etorrira egingen dira eta lehendabiziko biak finala jokatu dute otsailaren 3an Lesakako frontoian.

Zonalde bakoitzeko ordezkariak hauek dira:

Paleta, gomazko pilotarekin:

MALDAERREKA: Claudio Retegi - Jose M. Retegi

BAZTAN: Jose Luis Jorajuria - Alejandro Galarregi

BORTZIRIAK: Hita anaiak (Igantzi)

LEITZARAN: Juan Estango - Miguel Elizalde

Paleta, larruzko pilotarekin:

MALDAERREKA: Maritxalar Ibarra

BAZTAN: Miguel Inbuluzketa - Iñaki Odriozola

BORTZIRIAK: Patxi Txoperena Tomas Ruiz de Garibay

LEITZARAN: Enrique Gomez Guillermo Gomez

Baztandarren Biltzarra kirola bultzatzen

Abenduaren 17an ospatu zen XII. Baztandarren Biltzarra Kross Herrikoia. 90en bat lagunek parte hartu

zuten eta sailkapena horrela gelditu zen:

Benjaminak: Iñaki Bidegain (Elizondo) 2' 18"

Alebinak: Javier Bañarea (Doneztebe) 4' 43"

Infantilak: Gonzalo Errandonea (Gure Txokoa) 10' 50"

Kadeteak: Javier Calvo (Gure Txokoa) 17' 56"

Junior: Iñaki Irigoien (Gure Txokoa) 23' 20"

Senior: Angel Aizpolen (Iruñea) 20'

Baztandarren Biltzarra antolatutako hamabostaldiak baditu ekitaldi gehiago; horrela, urtarrilaren 7an goizeko 12,30etan, *II Milla Baztandarren Biltzarra* ospatuko da.

MATTARI ALTZUARTE

Zain dezagun gure osasuna

Osasunarentzat bezala gure oreka emozionalarentzat ere ona izan dadin, arau hauek kontutan eduki behar ditugu; batez ere denbora libreaz baliatzeko:

* Ez sakabanatu energiarik; loari ez denborarik lapurtu. Gure gorputzak atsedena hartzeko eta lasaitzeko ere gai izan behar du; leher egina geldu ez dadin.

* Ez galdu denbora "alferrik". Aprobetxa ezazu munduan zer gertatzen den jakiteko, ikasteko.

* Ez egon jende aunitzekin zoroska moduan. Lagun gutxi batzurekin elkartu eta haiekin harremana sakontzen saia zaitez.

* Ez zaitez egon pasiboki; telebista aintzinean ez "denborarik erre". Ekintzak egin, gauzak sortu eta birsortu.

* Kasu eman alkohola eta tabakoarekin. Hankak erabiliz, ariketak eginez eta mugimenduaren bitartez, gorputza zaindu; tentsioak kanpora daitezten.

* Kasu eman taberna, diskoteka eta orohar leku itxietan denbora gehiegi egotearekin. Naturarekin harremanetan sartu eta aire garbia arnastu.

* Kasu eman kontsumismo, ordutegi estu eta stressarra eramanen zaituzten egin behar berriekin. Segurtasuna eta lasaitasuna eskuratuko dizuten jokabidetan sar zaitez.



Aro berriaren atarian

*Titulu honekin
eskeiniko dizuegun atalak,
astrologia izanen du
ardatz nagusia;
horren hurbileko diren
tarot, grafologia, esku
irakurketa, yoga,
fisionomia etabar ere
aztertuko dituelarik.*


*Asmoa, denetarik
zerbait ezagutzera ematea
da, sobera gauza
teknikorik gabe eta
tarteka umore
pixka batekin.*



Atal idekia izaita gustatuko litzaidake, nahi due-
nak parte hartzeko, eritziak emaitako, kriti-
katzeko edota galderak egiteko aukera
izanez.

Aurkezpen modura, etxalar-
tarra naizela erranez hasiko
naiz, 31 urtekoa. Gai hauek
aspalditik gustokoak izan
baditut ere, lau urte ber-
terik ez da beraietaz se-
rioski interesatzen hasi
nintzela. Ikasketak, gehien
batean, Donostia-
ko AGA edo Gipuzkoa-
ko Elkarre Astrologi-
koan egiten ditut eta
bertako lagunen kolabo-
razioa espero dut.

Sarritan aditzen da aro
berri batean sartzea goa-
zela, edo dardu garel; ziklo
baten azkenean gaudela eta al-
daketak datozela adierazten digu
horrek, denboraldi berritara mol-
datzea, zahartuta geratu diren egitu-
rak hautsi eta bertze berri batzuek eraiki-
tzea ere eskatzen digu, hau da; gizon berria so-
rteraztea.



Gizonak badaki bere barnean mikrokosmo bat dau-
kala, zelulez osatua, bere gisa ederki funtziona-
tzen duena; badaki hor goian makrokosmo
bat badela, planetek eta izarrek osatua,
ederki funtzionatzen duena ere.

Irudiak, biak erlazionatzeko gi-
zonak duen jakinmina adierazi
nahi du. Bere bizi aldrebesa
ulertzeko eta ordenatzeko kos-
mora begiratzen du. Beraz,
hauxe izan daiteke *astrolo-*
goaren definizioa: kosmoa-
rekin dauzkagun koneksioak
ezagutzen dituen gizona.

Egia da jendea gero eta
gehiago interesatzen dela as-
trologiaz, baina gehienak
ideia zuzen eta argi bat eduki
gabe. Pixkanaka-pixkanaka,
astrologia eta hurbilekoak zer
diren azaltzen saiatuko naiz, erran
nahi baita; halako zientzia-arte ba-
tzu, norberak bere burua hobeki eza-
gutzeko, bizitzaren egoerak ulertzeko,
norbera izaiten laguntzeko.

FERMIN ALTZUGUREN

Arkupeak: *bizitzeko ilusioa ageri-agerian*



Gaur egun Baztan, Malerreka eta Bortziriak (Lesaka ezik) elkartzen dituen errealitate bat, Arkupeak deitzen den jubilatuen, pentsionista eta alargunen elkargoa dugu, zalantzarik gabe.

Azkeneko hiru urte hauetan inguru honetako 35 herri desberdinetara zabaldu den Elkargo honetan dauden 1.800 bazkidek, garrantzi haundiko zerbait lortu dute: kultur eta dibertsio arloan antolatzen dituzten ekitaldi ugarietarako, beren zahartzaroari ikuspuntu alaikorragoarekin begiratzea.

Eta jubilatuek daramaten *mar-txa* ez da txantxetako: amaitu berri den urtean, honako ekitaldiak burutu dira: herri bakoitzean *Jubilatuena besta*; *mus txapelketak* herri, zona eta probintzia mailan, *Kultur Astea*: hitzaldiak, kirolak, ikuskizunak, *Ramon Latasari omenaldia*, eta abarrez osatua; *Arkupeak* deitzen den aldizkariaren lehen zenbakia kalean dago ere. Egun bateko 11 bidai edo ateraldi egin dira, 2 egunetan mendira joan gara deporte egitera, 100 urteko amonari omenaldia; 5 egun Jacan pasatuak, bertze 15 egun Gran Canarian eta Tenerifen, 11 egun Italian barrena, 4 egun Barcelonan, 15 eguneko 2

tanda Benidormen. Eta urte aberasgarri hau borobiltzeko, abenduaren 29an 800 lagunek ospatutako *Urte Zaharreko Besta*: meza Elizondon, bazkaria inguruko ostatuetan eta dantzaldia Bordatxon.


Ekitaldi guztien tartean, nere ustez, aparteko begirunea merezi duen 17 egunetako bidai Brasil eta Argentinara egindakoa litzateke. Erran genezake, alderdi haietan izan diren 32 kideek zoraturik etorri direla. Eurek diotenez, bidai ez omen zitekeen hobekiago atera: Ikusi dituzten toki paregabeak (Iguazu...) Argentinako euskaldunek beren Euskal-Etxeetan egin dizkieten ongi-etorriak; beren familiakoei luzatutako besarkadak; zenbat jende gure herrietatik noizbait Argentinara joanak! Kanposantu batetako hilarrietan agertzen ziren abizenak ikusirik, erdiak baino gehiago euskaldunak, hemengo edozein herri-tan aurkitzen zirela iduri omen zuen.

Argazkian ikus daitekenez, gure lagunak oroigarri batzu ere eraman

zizkieten argentinarrak euskaldunei, ikurriñadun txapel ederrak, bai noski. Eta haiek eskeinita honara ekarri zituztenak ere aski interesgarriak. Batik bat, Argentinan euskaldunek euskararen alde egiten duten lan harriagarria adierazten duten liburu eta aldizkariak, jendea euskalduntzeko egiten dituzten lanak eta antolamenduak, Euskal Kantu eta dantzarien taldeak eta abar. Argentinan nafartarrak ere euskaldun sentitzen omen dira: Jainkoari esker, gure tartera sartu diguten pozoia, Argentinara ez da iritsi oraindik...

Gauza aunitz gehiago kontatzen dute Argentinan izan direnek, baina hemen tokirik ez, denak kontatzeko. Zorionak *Ameriketarako* egin dituzten 32 kideei, zorionak *Arkupeak* taldeko kide guztiei pasa den urte honetan elkarrekin egun zoriontsuak pasa ditugulako, eta Jainkoak lagun, orain hasten dugun urtea ere berdintsu izan dadila.

MARTIN LEGARRA

			↖	Edateko	↖	Zeukan	↖	Radonaren sinbolo kimikoa
				Galdetzailea		Ongailu gozo		
		↗		↖		↖		↖
		Joan gaitezen	↗					
								
		↗						Txori mota
	↖	Grapatzeko erabiltzen den pieza	Kontso- nantea	↗	Iparretarrak	↗	Bokala	↗ ↖
Basa piztia			Italiako telebista				Ale landare	
↗		↖	↖		↖	Roentgen	↗	↖
(Indet.) Aratu	↗			Morea	↗	Bakarrik dagoena		
				Txakur bihurtu				
↗				↖			Zakur	↗
						(Errep.) Interjekzioa		
(Labur.) Opus	↗		Mahai jokoa				Bokala	↗
Boterea		I	Gai itsaskorra				Einsteinioa	
↗			↗ ↖		Sarrera	↗	↖	
					Erbioa			
Bokala	↗	Ahuntzaren ar	↗		↖		Gipuzkoako autoetan	↗ ↖
		Bokala					Uharteia	
↗		↖					↖	Bokala
								Berilioa
Kontso- nantea	↗	Ez eme	↗		Barazki mota	↗	↖	
Niri, du		Kontsonante bustia			Likido edangarri			
↗		↖	Listu	↗	↖	Zodiako zeinua	↗	
			Hamar			Bat		
	↗		↖			↖		Lehen bokala
								↗

